

ANDRA ETA GIZON. GIZAKI BAKAR, SEXU BIKOITZ

Andra eta gizon arteko arazoak oso garrantzitsu, hunkigarri eta eraginkorrak dira. Nire asmoa arazoaren erro beretik aztertzea da. Horregatik hasiko naiz giza naturaren ikuspegia ahalik eta bilduen adierazten, hasiera latz samarra emango badiot ere nire lanari.

I.- ANDRAZKOEN (ETA GIZONEZKOEN) GIZA IZAERA

1.- Gizaki (soinezko maitagogo) berdinak

Hau da nire ikuspegi oinarrizkoa, andrazko/gizonezkoen arazoa oinarriz argitzen duena: Gizakia soinezko maitagogo da¹.

Giza izakia gizaki egiten duena maitamena da. Eta maitamenaren alderdiak hauek dira: ezagumena eta hautamena.

Maitamena da buru, eta bere potentziak esaneko, menpeko. Adimena, nahimena eta oroimena maitamenaren ahalmenak dira. Eta zentzumenak ere maitamenaren eskuko. Hautamena (sa-

¹ Nire "gizakia maitagogo da" liburuko azalpena.